

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2018 Foru Dekretua, apirilaren 13koa. Onartzea ingurumen eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan ematekoak dira) arautzen dituzten oinarrien aldaketa, zeinak ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu baitziren, eta onartzea laguntza lerro horren 2018rako deialdia

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren nekazaritza-ingurumen eta klimarako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, eta orobat laguntza lerro horren 2016rako deialdia. Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan ematekoak dira, 1305/2013 zenbakiko erregelamenduak ezarritako mugen barruan, eta M10 "Nekazaritza-ingurumen eta Klimako neurriak" eta M11 "Nekazaritza ekologikoko Neurriak" izenez identifikatzen dira.

Gero, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 20/2017 Foru Dekretuz, aldatu ziren nekazaritza, ingurumen eta klima laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, zeinak ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu baitziren, eta onartu zen laguntza lerro horren 2017rako deialdia.

Deialdi hori ebatzitakoan, beharrezko jotzen da oinarri arautzaileko zenbait alderdi zehaztea, LGP autonomikoari proposatutako aldaketen arabera.

Neurri horietarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren iraupen osorako dagoeneko agortuta dago LGNEFren zuzkidura finantzieroa; hortaz, horiek finantzaketa horretatik atera behar dira eta laguntza nazional gisa adierazi, nahiz eta programa horretan xedatutakoari doitu behar diren beti -azken aldaketa Europako Batzordearen 2017ko maiatzaren 30eko C(2017) 3859 Erabakiz onartu zen.

Kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2018ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza-ingurumen eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak (M10 eta M11 identifikazio kodeak dagozkie, hurrenez hurren), ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarriak -20/2017 Foru Dekretuak aldatua.

1.1 Ezabatzea onuradunen betekizunak finkatzen dituen 3. artikuluko 1.a), 1.b), 2.b) eta 2.d) idatz zatiak, aldatzea 2.a) eta 2.c) idatz zatiak eta artikuluen gainerako idatz zatiak berrizendatzea. Hona nola geratzen den idatzita:

3. artikulua. Onuradunen betekizunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira betekizun orokor hauek eta azpineurri bakoitzean I. eranskinean ezartzen diren betekizun bereziak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

3.1 Pertsona fisikoak:

a) 18 urte beteta izatea eta 65 urte bete gabe izatea, konpromisoaren lehenengo urterako laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

c) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

d) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hau emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

e) Ordainketa bakarreko eskaera egitea.

3.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak aurreko 3.1 artikulua b), c), d) eta e) idatz zatiek pertsona fisikoei ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuak eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 3.1.b) artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute.

b) Ustiategiko kideek 18 urte beteta izan beharko dituzte eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaera aurkezteko epea amaitzen denean. Betekizun hori betetzat joko da, baldin eta bazkide guztien erdiek (ehuneko 50) sozietatearen kapitalaren gutxienezko ehuneko 50eko partaidetza izateko betekizuna betetzen badute.

c) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

d) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorriz titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiategiek sozietate zibilek duten tratamendua izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

1.2 Aldatzea 4. artikulua 7. idatz zatia, baldintza eta konpromiso orokorrak finkatzen dituen. Hona nola geratzen den idatzita:

4.7 Azpineurri ezberdinetan laguntzak jaso ditzaketen lursailak, laboreak eta aprobeixamenduak Lurzati Identifikazio Geografikoko Sisteman indarrean dauden erabileren arabera definitutakoak izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egongo dira.

1.3. Ezabatzea 6. artikulua 2. idatz zatia eta aldatzea 3. idatz zatia, ustiategien eskualdatzeak arautzen dituen. Hona nola geratzen den idatzita:

6.3 Konpromisoaren aldi onuradunak bere ustiategia osorik edo zati batean beste pertsona bati eskualdatzen badiu, azken horrek konpromisoari eutsi ahalko dio betetzeke geratzen den aldi edo konpromisoa iraungi ahal izango da, itzulketarik egin beharrik gabe konpromisoa eraginkorra den aldi zehar.

1.4. Aldatzea 12. artikularen 4. idatz zatia, onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebeharrak batzuk ez betetzeagatik murrizketak eta zehapenak arautzen dituena. Hona nola geratzen den idatzita:

12.4 Konpromisoaren aldian konprometitutako azalera edo ALUen gehieneko kopurua mantendu ezean, murrizketa hauek aplikatuko dira:

*MURRIZKETAREN EHUNEKOA, KONPROMETITUTAKO AZALERA EDO ALUEN GEHIENeko KOPURUARI DAGOKIOEZ	MURRIZKETA	
	EZ BETETZEAREN 1. URTEA	EZ BETETZEAREN 2. URTETIK AURRERA
ehuneko 10 < murrizketa ≤ ehuneko 40	ehuneko 20	ehuneko 40
ehuneko 40 < murrizketa ≤ ehuneko 60	ehuneko 50	ehuneko 100
ehuneko 60 < murrizketa ≤ ehuneko 100	ehuneko 100	ehuneko 100

* Murrizketaren ehunekoa = (hauen bien arteko aldea: konprometitutako azaleraren edo ALUen gehieneko kopurua, eta onargarritasun baldintzak, oinarriko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituzten azalera edo ALUen kopurua), konprometitutako azalarekin edo ALUen gehieneko kopuruarekin zatituta eta 100ekin biderkatuta.

Konprometitutako ALUei dagokienez, ikusten bada murrizketa ehuneko 10 baino gutxiago dela, ehuneko 5eko murrizketa aplikatuko da ez betetzearen lehen urtean eta ehuneko 10 ez betetzearen 2. urtetik aurrera, urte hura barne.

Nolanahi ere, konprometitutako gehieneko azalera edo ALUak mantentzea behin eta berriro ez betetzeak ez du ekarriko aurreko urteetan jasotako kopuruak itzultzea.

1.5 Aldatzea 15. artikularen 3. idatz zatia, laguntzaren kalkulua eta haien zenbatekoak finkatzen dituena. Hona nola geratzen den idatzita:

15.3 Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuei edo bestelako pertsona juridikoei dagokienez, gerta daiteke bazkide edo kide guztiek ez betetzea 3.1.a artikuluan adinari buruz ezarritako betekizuna; halakoetan, laguntza murriztuko da baldintzak betetzen ez dituztenen partaidetzaren proportzio baliokidean, behin 3.2.b artikuluan ezarritako ehuneko 50eko betekizuna egiaztatu ondoren.

1.6 Aldatzea 17. artikularen 4. idatz zatia, eskabidearen dokumentazioa finkatzen duena. Hona nola geratzen den idatzita:

17.4 Arabako Foru Aldundiak beharrezko den dokumentazioa bilduko du laguntza modu telematikoa kudeatzeko, salbu eta eskatzaileak berriaz adierazten badu kontrakoa. Edonola ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du beharrezko deritzon dokumentazio osagarria dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala baliotsi ahal izateko.

1.7 Aldatzea 18. artikularen (Izapidetzea) 3.1 idatz zatia. Hona nola geratzen den idatzita:

18.3.1- EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren babespean konpromisoak indarrean dauzkaten eskaerak, konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruaren gehieneko zenbatekoaren berdina. Konpromiso mailarik altuena hainbat urtetan ematen bada, kontuan izango da haietan jasotako gehieneko zenbatekoa.

1.8. Ezabatzea 25.3 idatza zatia eta aldatzea 25. artikularen 1. idatz zatia, laguntzen finantzaketa arautzen duena. Hona nola geratzen den idatzita:

25.1 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira.

1.9 Aldatzea I. eranskinen A.1.6 idatz zatia, M10.1 "Produktzio integratua" azpineurriaren barruan lurzati onargarritasunaren baldintza espezifikoak arautzen dituena. Hona nola geratzen den idatzita:

A.1.6 Laguntzaren kopurua.

Laguntza honetan, urteko prima bat ematen da ekoizpenera bideratutako hektarea bakoitzeko, onartutako ekoizpen integratuko arauarekin. Hau da kopurua: Baratzezaintzak ustiategi batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duena azalera handiko baratzezaintza izango da.

“Negutegiko” produkzio joerari lotutako prima ordaintzeko, barrutiek plastikozko estalpeko baratzezaintzaren modalitatekotzat aitortuak behar dute izan, eta Nekazaritzako Lurzatien Geografia Informazioko Sistemak (NLGIS) erabilerak negutegikoa izan beharko dute.

Diruz lagun daitekeen gehieneko azalera, ustiategiko, esne behi aziendaren produkzio joeran, 25 ha izango da eta mahastien produkzio joeran, 40 ha.

LABOREA	PRIMA EURO/HA
Erremolatxa	224
Hazitarako patata	253
Kontsumorako patata	223
Txakolin mahastiak	594
Arabako Errioxako mahastiak	281
Baratzeko produktu estentsiboak	265
Baratzezaintzako laborea	472
Berotegia	1.064
Sagarrondoa	402
Kiwiak	420
Esne behiak	98

1.10 Aldatzea I. eranskineko B.1.4 eta B.1.5 idatz zatiak, M11.1 “Nekazaritza ekologikora bihurtzea” azpineurrian laguntzaren zenbatekoak eta haren dokumentazio espezifikoak arautzen dituena. Hona nola geratzen diren idatzita:

B.1.4 Laguntzen zenbatekoa.

Laguntza, berez, nekazaritzarako azalera hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikora bihurtzen ari diren labore taldeka, taula honen arabera: Estali gabeko baratzezaintzak ustiategi batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duen azalera labore handiko baratzezaintza izango da.

“Negutegiko” produkzio joerari lotutako saria ordaintzeko, barrutiek plastikozko estalpeko baratzezaintzaren modalitatekotzat aitortuak behar dute izan, eta Nekazaritzako Lurzatien Geografia Informazioko Sistemaren erabilerak (NLGIS) negutegikoa izan beharko du.

Lagungarri izango den gehieneko azalera ustiategi bakoitzeko, mahastien produkzio joeran 40 ha izango da, barruan hartuta bai bihurtzen ari diren azalera bai mantentzekoak direnak.

LABORE TALDEAK	PRIMA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEKO HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Lugorria / ongarrri berdea	121	Hegazti hazkuntza, haragitarako	109
Zereal alea	244	Hegazti hazkuntza, arrautzatarako	75
Alpapa	242	Ahutzak	63
Bazkak eta proteaginosak*	190	Ardiak, haragitarako	56
Aletarako lekadunak	311	Ardiak, esnetarako	63

LABORE TALDEAK	PRIMA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEN HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Kontsumorako patata	420	Behiak, haragitarako	32
Hazitarako patata	482	Behi esneak	117
Industria laboreak	246	Zaldiak	29
Belardi polifita	193	Txerriak	137
Labore handiko baratzezaintza	496		
Estali gabeko baratzezaintza	1284		
Negutegiko baratzezaintza	2013		
Fruitu lehorrak	448		
Baratzezaintza	900		
Olibazaintza	300		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Arabako Txakolina	900		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza. Errioxa	514		

Abereen ALU bakoitzeko primen batura, ekologikoan, azalera osoaren oinarrizko kopuruari gehituko zaio, modu proportzionalen. Ganaduko prima hau gehienez 2 ALU izango da aipatutako hektarea bakoitzeko. Modu berean, batuketa egindakoan, egiaztatuko da ha bakoitzeko ordainketak ez duela gainditzen hektarea bakoitzeko ezarritako gehienekoa.

B.1.5 Dokumentazio espezifikoa.

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorraz gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

- Laguntza jasotzen duten lurzatiak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEKEN kontrol sisteman izena emanda daudela frogatzen duen ziurtagiria. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda.

- Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, laguntza jasotzen duten lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda daudela frogatu behar da, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.

Zenbait produkzio joeratan, esaterako baratze laboretarako, eskatu ahalko da memoria bat aurkeztea, non labore plana jasoko baita, zehaztuta zer espezie landuko den, noiz aldatuko diren txandak, zein orri egongo diren eta zein izango diren ereite datak eta laboreen okupazio datak; halaber, kasuan kasuko krokisak jasoko dira.

1.11 Aldatzea I. eranskineko B.2.4 eta B.2.5 idatz zatiak, M11.2 "Nekazaritza ekologikoari eustea" azpineurrian laguntzaren zenbatekoak eta dokumentazio espezifikoa arautzen dituen. Hona nola geratzen diren idatzita:

B.2.4. Laguntzaren zenbatekoa.

Laguntza, berez, nekazaritzarako azalerako hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikoko labore taldeen arabera, taula hau kontuan izanik. Estali gabeko baratzezaintzak ustiategi batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duen azalera labore handiko baratzezaintza izango da.

"Negutegiko" produkzio joerari lotutako saria ordaintzeko, barrutiek plastikozko estalpeko baratzezaintzaren modalitatekotzat aitortuak behar dute izan, eta Nekazaritzako Lurzati Geo-grafia Informazioko Sistemaren erabilerak (NLGIS) negutegikoa izan beharko du.

Lagungarri izango den gehieneko azalera ustiategi bakoitzeko, mahastien produkzio joeran 40 ha izango da, barruan hartuta bai bihurtzen ari diren azalerak bai mantentzekoak direnak.

LABORE TALDEAK	PRIMA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEKO HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Lugorria / ongarri berdea	121	Hegazti hazkuntza, haragitarako	93
Zereal alea	222	Hegazti hazkuntza, arrautzatarako	69
Alpapa	215	Ahuntzak	56
Bazkak eta proteaginosak	168	Ardiak, haragitarako	51
Aletarako lekadunak	253	Ardiak, esnetarako	56
Kontsumorako patata	348	Behiak, haragitarako	26
Hazitarako patata	361	Behi esneak	103
Industria laboreak	224	Zaldiak	26
Belardi polifita	193	Txerriak	127
Labore handiko baratzezaintza	388		
Estali gabeko baratzezaintza	923		
Negutegiko baratzezaintza	1561		
Fruitu lehorrak	372		
Baratzezaintza	900		
Olibazaintza	229		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Arabako Txakolina	900		
JDko ardozaintza eta mahastizaintza Errioxa	440		

Abereen ALU bakoitzeko primen batura, ekologikoan, azalera osoaren oinarrizko kopuruari gehituko zaio, modu proportzionalean. Ganaduko prima hau gehienez 2 ALU izango da aipatutako hektarea bakoitzeko. Modu berean, batuketa egindakoan, egiaztatuko da ha bakoitzeko ordainketak ez duela gainditzen hektarea bakoitzeko ezarritako gehienekoa.

B.2.5 Dokumentazio espezifikoa.

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorraz gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

- Laguntza jasotzen duten lurzatiak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEK-en kontrol sistema izena emanda daudela frogatzen duen ziurtagiria. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda.

- Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, laguntza jasotzen duten lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda daudela frogatu behar da, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.

Zenbait produkzio joeratan, esaterako baratze laboreetarako, eskatu ahalko da memoria bat aurkeztea, non labore plana jasoko baita, zehaztuta zer espezie landuko den, noiz aldatuko diren txandak, zein orri egongo diren eta zein izango diren ereite datak eta laboreen okupazio datak; halaber, kasuan kasuko krokisak jasoko dira.

Bigarrena. Onestea, 2018. urterako, dirulaguntza deialdia, honako ezaugarri hauekin:

- Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurria (M10):

- Ekoizpen integratua, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.1 azpineuria).

- Bertako animalien arrazak kontserbatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.3 azpineurria).
- Erlezaintza biodibertsitatea hobetzeko, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.4 azpineurria).
- Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.5 azpineurria).
- Nekazaritza ekologikoko neurria (M11):
 - Nekazaritza ekologikora bihurtzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.1 azpineurria).
 - Nekazaritza ekologikoari eustea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.2 azpineurria).
- Epea eta lekua: ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko ezarri den epean aurkeztuko dira laguntza eskaerak (2018ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne). Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren nekazaritzako Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako edozeinetan aurkeztuko da, hargatik eragotzi gabe urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa.

Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 950.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastuen aurrekontuetako 40.1.01.42.01.479.00.03 "Nekazaritza eta Ingurumen neurriak" izeneko partidaren kontura.

Esandako kreditua zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, 11/2016 Foru Arauak, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita ere aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2018ko deialdi honetan 18.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko, eskatutako neurriak gorabehera. M10.1.3 "Bertako arrazen kontserbazioa" azpineurriko laguntzak arraza bat baino gehiagotarako eskatuz gero, gehieneko kopurua gehitu ahal izango da, honela:

– 2.000,00 euroraino, eskatzen den bigarren arrazako animalientzat.

– Aurrekoaz gain, beste 1.000,00 euroraino, eskatzen den hirugarren arrazako animalientzat.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtso guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko apirilaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE